3.

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2021 MAR. - 4
SARRERA/ENTRADA 1818 IRTEERA/SALIDA ..................

**Dokumentu mota / Tipo de documento:** ERDIBIDEKO ZUZENKETA

**Nori zuzendua / Dirigido a:** EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

**Proposatzailea / Proponente:** EA-NV, ES-SV, EP-IU

**Data / Fecha:** 04.03.2021

**Espediente zenbakia / Número de expediente:** 12/11/02/01/00061

**Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:** Eskola-jazarpenaren aurrean haurrak babesteko neurriak hartxeari buruz / Relativa a la adopción de medidas para la protección de la infancia frente al acoso escolar y el ciberacoso.

| | |
|---|---|
| Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio: | El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco: |
| 1. Euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrera egiten jarraitzea. Horretarako, ekitatea, gizarte-kohesioa eta balioetan oinarritutako hezkuntza sustatuko dira. Era berean, aniztasunarekiko eta pentsamendu- eta sinesmen-askatasunarekiko errespetua, giza eskubideen defensa, bereziki, haurren eta nerabeen eskubideak, eta aniztasunaren defentsa sustatuko dira. Eta, era berean, elkartasuna, justizia, lankidetza eta aukera- eta emaitza-berdintasuna bezalako balioen garapena bultzatuko da. | 1. A seguir avanzando en la calidad del sistema educativo vasco. Para ello se promoverán la equidad, la cohesión social y la educación en valores. Del mismo modo se fomentará el respeto a la pluralidad y libertad de pensamiento y creencias, la defensa de los derechos humanos, en especial de la infancia y adolescencia, y la defensa de la diversidad. E, igualmente, se impulsará el desarrollo de valores como la solidaridad, la justicia, la colaboración y la igualdad de oportunidades y resultados. |
| 2. Balioetan oinarritutako hezkuntza indartzen jarraitzea, hezkidetza eta eskola-jazarpena prebenitu eta desagerraraztea bultzatuko duen bizikidetza positiboa lortzeko, Ikusmira Haurren Behatokiarekin eta ISEI-IVEIrekin lankidetzan. Horretarako, protokolo sistematizatu bat ezarriko da, bizikidetza positiboaren garapenari eta | 2. A seguir reforzando la educación en valores para una convivencia positiva que favorezca la coeducación y la prevención y erradicación del acoso escolar en colaboración con el Observatorio de la Infancia Ikusmira y el ISEI-IVEI. Se establecerá, a tal fin, un protocolo sistematizado, que tendrá caracter anual, de |

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

jazarpen- eta ziberjazarpen-egoerei buruzko datuak eta informazioa biltzeko, urtero.

3. Ikastetxeak bizikidetza positiboko eta jazarpen-egoera posibleen aurrean zero tolerantziako gune seguruak izan daitezen laguntzen jarraitzea, BIZIKASI ekimenaren bidez, ezinbesteko baldintza baita hezkuntza-sistemaren helburu nagusia lortzeko; hau da, ikasle guztiei garapen pertsonalean laguntzea eta herritar aktibo eta arduratsu gisa gizartean parte hartzeko gaitasunak eta tresnak ematea. Horretarako, urtero ebaluatu eta jendaurrean aurkeztuko dira, Hezkuntzako Ikuskaritzak eta ISEI-IVEIk ematen dituzten txostenen bidez, Bizikasi ekimenaren esparruan hobetzeko esparruak detektatzeko eta ezartzeko garatutako jarduerak.

4. Ziberbullingari eta eskola-jazarpenari aurre egiteko tresna, protokolo eta orientabide berriak berrikusten eta ikastetxeen eta hezkuntza-komunitatearen esku jartzen jarraitzea, EAEko II. Hezkidetza Planaren esparruan eta haurren eskubideen arretan eta babesean espezializatutako erakundeen gomendioetan oinarrituta.

5. Eskola-jazarpenari eta arriskuei buruzko sentsibilizazio-programak eta arriskuen prebentzioa egiten direla bermatzeko behar diren ekintzak gauzatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bidez, hainbat biztanleria-taldetan.

Horretarako, behar adinako aurrekontu-baliabideak bermatuko dira. Baliabide horiek Euskal Administrazioko profesionalak

recogida de datos e informacion sobre el desarrollo de la convivencia positiva y las situaciones de acoso y ciberacoso.

3. A seguir contribuyendo a que los centros educativos sean espacios seguros de convivencia positiva y de tolerancia cero ante posibles situaciones de acoso a través de la iniciativa BIZIKASI como condición indispensable para lograr el principal objetivo del sistema educativo que consiste en acompañar a todo el alumnado en su desarrollo personal y dotarle de competencias y herramientas que le permitan participar en la sociedad como ciudadanía activa y responsable. Con este fin, se evaluarán y presentarán públicamente con carácter anual, a través de los distintos informes que se emiten desde la Inspección de Educación y el ISEI- IVEI, las actuaciones desarrolladas para detectar ámbitos de mejora e implementarlas en el marco de la iniciativa Bizikasi.

4. A seguir revisando y poniendo a disposición de los centros y de la comunidad educativa nuevas herramientas, protocolos y orientaciones ante el ciberbulling y el acoso escolar en el marco del II Plan de Coeducación de la CAPV y en base a las recomendaciones de organizaciones especializadas en atención y protección de los derechos de infancia.

5. A llevar a cabo las acciones necesarias para garantizar la realización de programas de sensibilización y prevención de riesgos de acoso escolar y de riesgos a través de las Tecnologías de la Información y la Comunicación en diferentes grupos de población.

Se garantizarán para ello recursos presupuestarios suficientes que deberán concretarse en el desarrollo de programas

prestatzeko programak garatzean zehaztuko dira. Profesional horiek haur eta nerabeekin lan egingo dute jazarpena eta ziberjazarpena atzematen eta prebenitzen, eta biktimei laguntza eta babesa ematen. Era berean, EAEko ikastetxe guztietan eskola-jazarpenaren eta ziberjazarpenaren aurrean jarduteko protokoloak garatzeko eta ezartzeko behar diren baliabideak bermatu beharko dira, baita eskola-jazarpena eta ziberjazarpena jasaten duten haurrentzat eskuragarri dauden salaketa-mekanismoak ere.

6. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-zikloetako hezkuntza-curriculumean informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arduratsurako programak garatzen, hobetzen eta txertatzen jarraitzea. Era berean, haur eta nerabeei eta haien familiei laguntzen jarraitzea, errespetuz jokatuko duen eta eskubideak sustatuko dituen herritartasun digitalaren sustapenean, eta, gainera, ziberbizikidetzaren eta ziberjokabidearen paradigmatik abiatutako diskurtso indartzaile bat txertatuz, haur gisa dituzten eskubideak gauzatzean ahalduntzeari arreta berezia eskainiz.

de formación de profesionales de la Administración Vasca que trabajen con infancia y adolescencia en la detección y prevención del acoso y ciberacoso, así como en la atención y protección de las víctimas. Al mismo tiempo, deberán garantizarse recursos suficientes para el desarrollo e implementación en todos los centros escolares de la CAPV de protocolos de actuación frente al acoso escolar y el ciberacoso, así como de mecanismos de denuncia accesibles para niños y niñas víctimas de acoso escolar y ciberacoso.

6. A seguir desarrollando, mejorando e incorporando al curriculum educativo de los ciclos de educación no universitaria, programas para la educación en uso responsable de las Tecnologías de la Información y la Comunicación. Seguir acompañando, igualmente, a la infancia y adolescencia, así como a sus familias, en la promoción de una ciudadanía digital respetuosa y promotora de derechos e incorporando, además, un discurso reforzador desde el paradigma de la ciberconvivencia y ciberconducta, con especial atención al empoderamiento en el ejercicio de sus propios derechos como infancia.

EA-NV

S.V

EP-IV